

## ETXETIK URTETZERA KOAN

1

Etxetik nunbaitera  
urtetzerakuan  
Jesus, Zu beti zagoz  
nire goguan.  
Lagundu egidazu  
nahi dozun moduan,  
zure testigu nadin  
nabilen lekuan.  
Argia buruan,  
bakea barruan,  
laguntza eskuan  
behar dan orduan;  
dana daukat bazagoz  
nire onduan.  
Pozago bizi danik  
nor da munduan?

2

Etenbako bidea  
da bizitza bera,  
noiznahi on egiteko  
mila aukera.  
Zatoz, Jesus laguna,  
graziz laguntzera,  
beti izan gura dot  
zu zinan antzera:  
Txarrean atzera,  
onean aurrera,  
maitasun legera  
beti jokatzera.  
Behartsuak zerbitzen  
hartuz jarrera,  
eta Aita goraldu  
biok batera.

3

Joan-etorrian nabil  
gelditu ezinez,  
hurkoari lagunduz  
badago minez.  
Jesus, zure antzera  
jardun ta ekinez,  
zuretzat ez da nahiko  
bakarrik dotrinez.  
Ez itxura finez  
ta joko zikinez;  
beti on eginez  
doan ahaleginez.  
Holan poztuko dogu  
Aitatxo zinez,  
eta gure bihotza  
poz atseginez.

4

Esandako guztia  
heldu jat burura,  
sartu bedi osorik  
bihotz barrura.  
Ibili nahi dot, Jesus,  
zure agindura  
eta bialdu naizu  
nahi dozun lekura.  
Hau ez da itxura,  
baina bai ardura:  
norbere eskura  
hau da abentura!  
Bide honek daroa  
zuzen zerura!  
Orduan bai gu, Jesus,  
biok gustura!!!

A. Martzel